


# ESKAILERA

**Isidoro Fernández Flórez, Fernanflor**  
**(Madril, 1840-1902)**



Jatorrizko Titulua: La Escalera

© Marjinalia Bilduma

Lege-Gordailua: SS-33/02

—BA AL DAKIK NOR ITZULI DEN Paristik? —galdetu zidan atzo lagun batek.

—Zer jakingo dut nik ba? Tira, esaidak nor den.

—Marianito Lucientes!

Eta orain zuei guztiei kontatzera noakizue zer zela-eta joan zen Parisa Marianito.

Duela lau urte, eta gaueko hamaikak inguruan edo, etxerako bidea hartuta neukan Kale Nagusian barrena, noiz-eta, bat-batean, bizkarrean kolpe bortitza sentitu bainuen. Buelatu nintzen, harriturik eta haserre, eta kolpea eskailera bat lepoan zeraman gizon prestu batek eman zidala ikusi nuen. Gizon prestu batek, bai, jaunok, eta horixe zen harrigarriena.

Hark aurrera jarraitu zuen, hitzik esan gabe, urrats arinean, itxuraz alditxarturik, eta bakarka mintzatzen zihoala ere iruditu zitzaidan.

Harri eta zur geratu nintzen; eskailerako gizonarengan nire lagun Lucientes ezagutu berria nuelarik; gazte agurgarria, letratua, Ogasun Ministerioan aritzen zena, olerkari eta musikari sona eta zantzuak zituen berbera.

—Ezina duk bera izatea —esan nuen neure artean—. Bai, bera duk —erantsi nuen—, zoratu egin duk horratio.

Eta atzetik jarraitu nintzaion, *Consejos* alderantz, deiadar eginez:

—Eh, Marianito!

Marianitok, ordea, ez zuen burua bueltatu.

Otsaileko gaua zen, argia baina hotz-hotza; kalean ez zebilen inor.

—Eroturik hago! Ez zegok zalantzarik. Halako gizon prestu bat kalean, eskailera bat eramanez, nor-eta kartel-jartzaile baten antzera! Zer misterio da hau?

Marianitok, ordea, korri ez baizik hegan egiten zuen. Egia da, bai, eskailera oso mehea eta motza zela.

Marianito Kale Nagusiaren bukaerara iritsi zen, eta, Palacio aldera jiratu beharrean, nik uste nuen bezala, Viaducto-n sartu zen.

Idea izugarri bat pasa izan zitzaidan burutik. Zubiko burdinesia altxatzen amaitu berria zuten, bizitzaz etsita zeudenek salto batez jauzteko aukerarik izan ez zezaten, modan zegoen legez.

Halaxe izan zen; Marianito zubian sartu, eta, erdialdera iritsi baino lehen, eskailera barandaren aurka jarri, maila bat igo...

Eta ez zuen gehiagorik igo, nik berokitik heldu eta bortxaz bertatik jaitsiarazi nuelako.

—Utzidazue! Utzidazue! —hots egin zuen, lurretik altxaturik, ezkoa bezain zurbil, begiak noraezean zituelarik eta nirekin borrokatzeko prest helburua gauzatzeko asmoz.

—Zelan utziko haut ba! Emaidak besoa eta hator nirekin ala bikote bati deituko zioat<sup>1</sup> eta kartzelara eramazaraziko haut.

Ez zebilen bikoterik; baina nire baiezipenak etsiarazi zuen bere buruaz beste egiteari dagokionez. Besoa eman zidan, burua jaitsi zuen,

---

<sup>1</sup> Polizia bikote bati alegia.

negarrez hasi zen, eta bere malko sutsuak eskuetan erortzen zitzaizkidala sentitu nuen.

—Tira, ba —esan nion—, hi, inoiz izan den gizasemerik zoriontsuena; nagusiek, lagunek, emakumeek oro har maitatua, eta hire neskalagunaren maitea batik-bat... Ez ote hindoazen izatera inoiz baino zoriontsuagoa?... Ez ote hindoan urrezko amets bat ematera?... Ezkontzera?

—O, elezuri halakoa! Ez ezak aipatu ere egin! Emakume doilor eta zitala!

Nahigabeturik geratu nintzen.

—Zer diok? Bera, edertasun eta ontasun apartekoak, maitale garbia eta saiatua izanik?... Hamaika aldiz ez al hidan esan?

—Bai, hala duk. O! Nor barnera daiteke emakume-bihotza deritzon leize horretan! Ziria sartu zidak: bere maitasuna gezur hutsa zuan; bere aingerutxo-aurpegia mozorroa baino ez duk, materialismorik nazkagarrienaren begitartea ezkututzen duena!

—Nahastuta naukak. Kontaidak dena. Ni nauk, txikitako hire laguna. Zalantzan al daukak nire laguntasuna?

—Ez, bizia salbatu badidak ere. Entzun, bada. Badakik: Juliarekin ezkontzea erabakita neukaan: irrikatzen nengoan, eta, bestalde, bere amak hain azalpen zehatzak egin zizkidaan, ezen, ez bainuen beste erremediorik izan haren eskua eskatu ala etxe hartatik alde egitea baino. Juliaren maitasunaz zalantzarik txikiena ere ez neukaan nik. Zalantzarik txikiena? Oraindik hartan sinesten

dudala uste diat eta! Hala ere, harekin zoriontsua izatea espero banuen ere, apur bat kezkatu nengoen plazerrekiko, luxuarekiko eta banitate-mota guztiekiko zerakutsan jarrera zela eta. Zenbat diru ez ote didan emakume horrek xahutuarazi antzokietan, *bouquet-etatan*<sup>2</sup>, txurrotegietan eta, orain ausartzen nauk esatera, niretzat balio handiegiko harribitxi batean edo bestean, hark lagun batzuen opari gisa aurkezten bazituen ere! Nik, ordea, hari guztiari barkagarria neritzoan. Ez al da normal-normala emakumeak atsegin hartzea bere buruaz gozatuz eta bere burua nabarmenduz, eta areago nor-eta Juliaren kasuan, hain polita izanda? Ezkontzen denean —pentsatzen nian nik— kaskarina izateari utziko zio, eta bere senarraren emazte duin eta etxekoandre on izango duk. Eskontzeko mandatua eginda neukala jakin zuen egunean, pozik agertu zuan, baina... presarik ez zegoela esan zidaan.

—Bitxia erantzuna! —hots egin nuen.

Lucientesek jarraitu zuen:

—Begira —esan zidan zitalak—, nik asko maite haut, asko-asko gainera, benetan, hik uste baino gehiago; baina ez nauk ama bezain egonarri gutxikoa. Ez al didak esan laster maila-igoera emango diatela? Laguna daukaan ministroak hi diputatua izatea nahi duela? Ondasunak handiagotzeko proiektu handiak dituala? Zergatik ez itxaron orduan?... Ez duk nigan sinesten? Sekula, sekula ez nauk beste inorena izango, hirea baizik!

---

<sup>2</sup> Bouquet, lore-xorta.

Ez dakit zer-nolako artegatasuna jabetu zen nitaz. Haren begiek maitasuna adierazten zuten; haren hitzek ordea...

Aitzitik, bere amak, poz-pozik, bazkaltzera gonbidatu ninduen egun hartan.

—Gaur —esan zidan— nire senar zenduaren lagun bat etorriko da gurekin bazkaltzera; Valladolideko jauntxorik aberetsanetariko bat da. Antza denez, gorteiatzen ez da makala gizona. Begira zer oparitu dion Juliari bere aitarekin izandako adiskidetasunaren omenez!

Eta eskularru-kaxa bat erakutsi zidan, kristalez eta zilarrez egina, bostehun ogerleko gutxienez ondo balikoko lukeena.

Hotz-hotzik gelditu nintzen barrutik.

—Gizon horrek aberatsa izan behar du oso!  
—hots egin nuen Juliari begiratu.

Juliak begiak apaldu eta album bat gainetik ikusten hasi zen.

—Eta gaztea al da? —galdetu nuen.

—Mundu guztiaren adina dauka! —  
erantzun zuen amak—. Berrogeita hamar bat urte.

Etxetik atera nintzen; den-dena ikusten nuen beltz; traizio ikaragarri baten susmoa neukan; baina bere begitarte xaloa, bere zinak gogoratzen nituenean, itxaropena berpiztu egiten zen nigan.

Haiekin bazkaldu nuen, jauntxo handiarekin eta Matilde andrearekin —Juliaren izebarekin alegia—; ezagutzen duk.

Jauntxo handiak bere bazkalekuei buruz, hiri-lursailetan inbertituta zeuzkan milioiei buruz, Espainiako Bankuko bere akzioei buruz eta

Estatuko bere paper-ondasunei buruz hitz egin zuen; Madrilen bizitzen jarri, antzoki guztietako harpide izan, dantzaldi bikainak antolatu eta, tira ba, bere errenta itzelak alaiki xahutzea erabakita zeukala esan zigun lasai-asko.

—Baina, zer diozu, ene Jainkoa! —hots egin zuen Juliaren amak—. Zer diozu, On Plácido jauna! Gizon alargun batek guztiori egitea ez zait ondo iruditzen.

Eta hitz horiek halako *irri zuri batez* esan zuen:

—Tira! Ezkontzeko asmotan nabil!

Eta Juliari garailearen begirada jaurki zion, zeinak, arbuio hutsez, nire bularrean iltzatu baitzen gezia bezala.

Plácido jn. pertsona nahiko heldua zen; baxua, oso lodia, gorri-gorria; ezatsegina ez ordea; jokamoldez harroputza; haren baitan osoan igar zitekeen bere dirutza.

Elefante baten pare bazkaldu zuen.

Bazkaria bukatu, jaiki eta alde egitekoa egin nuen.

—Itxaron ezazu —esan zidan Juliaren izebak—; ilobak pare bat hitz esan behar dizu eta.

Zain geratu nintzen.

Juliaren amak eta izebak Plácido jaunarekin luze hitz egin zutela ohartu nintzen; amak harridura eta atsegina batera erakusten zituen. Urriki-begiradak zuzentzen zizkidala iruditu zitzaidan. Izebari hurbildu eta esan nion:

—Esaiozu Juliari neu naizela zerbait esan behar diona; etor bedi, edo eskandalua aterako dut.

Julia etorri zen, egongelako kabineteetariko batean sartu eta... o! ezin diat esan hark niri esan zidana, ezin diat esan; eta batez ere, nola esan zituen deabruzko hitz haiek! Nortzuk ziren gezur ziotenak, haren begiak ala haren ahotsa? O! Bera guztia (begiak, ahotsa, haragia, espirtua) zitalkeria, doilorkeria baino ez ziren!

Urkamendiari erronka egiten dion bidelapur heroikoaren antzera begiratu eta esan zidan:

—*Maite haut...* baina ezkontzera noak!

—Zital alua! —hots egin nuen.

Eta nire maitasun guztia amorru eta mesprezu bihurtu zen... Ez dakit nola ez zuten nire eskuek han bertan deuseztu!

Aldaroka joan nintzen, eroturik, hiltzeko zorian, eta gau osoa ibiltzen igaro nuen, orain bezala, kaleetan barna.

Biharamonean ezkontza igarrita zegoela jakin nuen, gaur burutzekoa zela... Gaur bertan ezkonduko dituk! Ulertzen al duk, azkenik?

—Ene lagun gizarajoa! —hots egin nuen, besarkada bat ematen niola.

Eta nire etxera eraman nuen, non hitz eta pitz igaro baikenuen gaua.

\*\*\*

Goizean, haren etxera lagundu nion.

—*Señorito* —esan zion neskameak—, hor barruan adineko emakume bat dago zure zain; Matilde andrea dela esan du.

Izeba zen, eta paper bat luzatu zion.



—Zer da hau? —hots egin zuen Marianok—. Zer esan nahi du?...

Kartazala dardarka ireki eta irakurri zuen:

«Agur betiko, Mariano. Barka nazak, eta mendekatzen hauen eta zigortzen nauen zeruari egin otoitz nire alde!»

Matilde andreari harri eta zur begiratu zion.

—Noski ba! —hots egin zuen—, nolatan jakingo duzu zuk ezer! Ezta inork ere! Gatozen harira. Nire iloba gaixoa! Atzo ezkondu behar zen... Bueno... Eta nolako ezkontza! Denek inbidia zioten. Bada ez; Plácido jaunak, hamaiketakoaren ondoren, apoplexiak jota hil zen, eta gau horretan bertan hil zen. Juliak horren berri izan zuenean, marmolaren pare gelditu zen, txintik esan gabe eta malko bakar bat ere isuri gabe. Plácido jaunaren etxean egon zen, baina ez zuen hura hiltzen ikusi nahi izan. Handik gutxira, haren falta sentitu genuen. Hona hemen gertatutakoa: zoroen pare atera zen, oihuka: «Den-dena galdu dinat!». Kale Nagusia hartu zuen, berokirik gabe, gau berandua bazen ere; Consejos-era iritsi eta Viaducto-n sartu zen... Neska gaixoa! Zer gehiago kontatuko dizut nik?...

Marianok begiak itxi eta bi eskuekin estali zituen. Alditxo baten ondoren...

—Baina, jauna —esan zuen Lucientesek—, zubiko eskudela altu samarra izanik, nola egin zuen handik salto egiteko? Nolatan ez zioten eragotzi?

—Patuaren nahia! —hots egin zuen Juliaren izebak—. Inork ez daki noiz eta nor jarri zuen han eskailera bat...

Lucientesek ez zuen ezer gehiago entzuterik izan. Ziplo erori baitzen lurrera.

## **AMAIERA**